

Arratsalde on / Egun on Barañaingo bizilagunak.

Udalak adierazpen bat egin nahi du, Festetan izandako gertakari baten inguruan.

Ustezko sexu eraso gertatu zen ostegunean, hilak 25, goizaldeko 5etan. Oraintxe bertan gertakaria ikertzen ari dira epaitegian. Baina hori da Udaletik, orain arte, eman dezakegun informazio bakarra.

Hori dela-eta, Barañaingo Udalak jakinarazi nahi dizue:

Emakumeekiko edozein indarkeria mota irmotasunez **salatzen eta gaitzesten duela**, orain, festetako testuinguruan eta urteko egun guztietan ere.

**Dei egiten dizue herritar orori** emakumeekiko indarkeria errotik kentzeko elkartasuna ager dezazuen eta, era berean, hura arbuiatu eta ezabatzeko konpromisoa har dezazuen horretarako antolatzen diren ekitaldietan parte hartzen.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa **adierazten** du, baita emakumeekiko edozein indarkeria mota errotik kentzeko ere.

Festak jarrai dezatela ohiko martxan, hori da gure nahia, eta guztiok goza ditzagun berdintasunez eta elkarbizitza baketsuan.

Buenas tardes / buenos días vecinos y vecinas de Barañáin.

Desde el Ayuntamiento queremos hacer un comunicado sobre unos hechos ocurridos en el transcurso de estas fiestas.

Se ha denunciado una agresión sexual el día 25, jueves, a las 5.00 h de la madrugada. En estos momentos el caso está siendo investigado en el juzgado. Ésta es la información que desde el Ayuntamiento podemos dar.

Al respecto, el Ayuntamiento de Barañáin desea transmitir que:

**Denuncia y rechaza** rotundamente todo tipo de violencia ejercida contra las mujeres, ahora en contexto de fiestas, y todos los días del año.

**Llama a la ciudadanía** a adoptar esta misma actitud de rechazo y compromiso, y a unirse a todos los actos que puedan derivarse contra este tipo de hechos.

**Manifiesta el** compromiso de seguir trabajando por la igualdad entre mujeres y hombres y en la erradicación de todos los tipos de violencia ejercidas contra las mujeres.

Deseamos que las fiestas sigan su curso normal y que todas y todos sigamos disfrutando en igualdad de condiciones y convivencia pacífica.